

EUSKAHALDUN BERRIA, ZORIONAK!!!

1-Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Ni katalana naiz, Bartzelonakoa. Hasi nintzen euskara ikasten hiru arrazoiengatik: alde batetik, nire senarra eZagutu nuen eta, bera Donostikoa zen; bestetik nire aitaren aita Ondarrokoa zelako eta arbasoen hizkuntza ikasi nahi nuen eta azkenik nire asmoa zen Euskal Herrira etortzea bizitzera. Nire ama hizkuntza katalana izanda, pentsatzen nuen hizkuntza ez dela bakarrik hitz egitea. Hizkuntza bizi egin behar da.

2-Zerk lagundu zizun bereziki ikasketa prozesuan?

Gehien lagundu zidaten gauzak euskara ikasten hurrengoak izan ziren:

- Nire gogoak, jokaera positiboa edukiz hizkuntza begira.
- Inguruak bilatzea euskara mintzatuaz eta biziaz: lagun berriak egin, lanean martxan jarri
- Nire pentsakera daukaten pertsonekin harremantzea.

3-Zer irabazi duzu euskara jakinda?

Gauza asko eta onak ekarri dizkit beti euskarak: lagun berriak egin eta harreman oso sendoak Euskal Herrian zehar, kultura euskaraz bizi ahal izatea, familian euskaraz bizi, nire semeen artean harremana sortzea, lanean euskaraz egin hainbat tokitan eta proiektuetan...

4-Zer aholkatuko zenioke ikasi nahi edo zalantzan dagoen norbaiti?

Bakarrik esango nioke, egin benetan sinisten badezu, bestela ez galdu denbora, dirura, gogoak,... Nire ustez ikastea, edozein gauza, jarrerarekin beti dago lotuta, jarrerarik ez badago bestea alferrik izango da.



Begoña Echaburu, Ikastolako ama

